Esp. kodea: 2026CHOZ0027 **Gaia:** Aseguruen aholkularitza eta artekaritza zerbitzua

TXOSTENA – KONTRATUAREN BEHARRA JUSTIFIKATZEKO

1) Espedientearen datuak

Kontratu mota: Kontratu hau kontratu pribatua da, SPLKko 25.1.a) 1º artikuluarekin xedatutakoarekin bat. Kontratua prestatu eta esleitzeari dagokionez, eta berariazko araurik ezean, kontratu hau 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legean jasotako xedapenen arabera arautuko da. Ondorioei eta amaierari dagokienez, SPKLko 26.2 artikuluarekin bat etorriz, zuzenbide pribatuko arauek arautuko dute.	
Kontratuaren helburua: Arrasateko Udalerako arriskuen eta aseguruen estalduran bitartekotasun eta aholkularitza zerbitzua jasotzea da helburu.	
Kontratazio Prozedura: Irekia sinplifikatua	
Kontratuaren aurrekontua, BEZ gabe: 9.000 euro urtean	BEZ %: salbuetsita
Kontratuaren aurrekontua, BEZ barne: 9.000 euro urtean	
Aurrekontuko partida: 0610.227.920.00.07 (383)Udalaren aseguruen aholkularitza kontratua.	
Kontratuaren iraupena: 2 urte, urte bateko beste bi epez luzatu daitekeena.	
Unitate sustatzailea: Kontratazio unitatea- Ogasuna	

2) Kontratu honek bete nahi du ondorengo behar hau:

Esp. kodea: 2026CHOZ0027 **Gaia:** Aseguruen aholkularitza eta artekaritza zerbitzua

2006 urtean aseguru pribatuen egoera erregularizatzea erabaki zuen Udalak. Momentu hartan Udalean indarrean zituen aseguru-polizak aztertu ondoren, beste administrazio batzuen egoera ezagutu, non kasu gehienetan aholkularitza eta artekaritza zerbitzua zuten hitzartuta, eta sektore profesional honen kudeaketak duen konplexutasuna kontutan hartuz, beharrezkotzat jo zen aseguru-polizak kontratatzeko dagokion kontratazio prozedura izapidetu aurretik aholkularitza eta artekaritza zerbitzua hitzartzea.

2023ko otsailaren 1etik zerbitzu hori "ALKORA E.B.S. CORREDURIA DE SEGURSO Y REASEGUROS, S.A." etxeak bete du Arrasateko Udalarentzat. Kontratu honen indarraldia 2027ko urtarrilaren 31an bukatzen da, eta, beharrezkoa da zerbitzuaren inguruan hausnarketa egitea, zerbitzuarekin jarraitu ala ez erabakitzeko. Lehenik eta behin azaldu behar dugu aholkularitza eta artekaritza zerbitzu honen funtzio garrantzitsuenak hauek direla:

- Aseguru-polizak kontratatzeko aholkularitza lanak, besteak beste, Udalaren beharrak aztertu, pleguak osatzeko laguntza teknikoa, proposamenak aztertu eta esleipenerako beharrezkoa den laguntza ematea.
- Aseguru-polizen gestio eta administrazio eraginkorra, batez ere ezbeharrei dagokionean.
- Udal teknikoei beharrezkoa den laguntza eskaintzea.
- Ezbeharren estatistikak jasotzen dituen txostenak egitea.

Urte hauetako esperientzia ikusita aholkularitza honek Udalari hainbat onura ekarri dizkio, besteak beste, hauek lortu ditugu zerbitzu honen bitartez:

- Kontratatu beharreko aseguru polizak zehaztu ditugu, ondasun eta zerbitzu guztiak behar bezala babestuta izateko.
- Aseguru polizak kontratatzeko hainbat kontratazio prozedura egin ondoren poliza bakoitzaren baldintzak ahalik eta egokienak eta zabalenak ditugu, aseguraturik gabeko ondasun edo zerbitzurik ez izateko.
- Zerbitzu honek poliza hauen prezioetan jaitsiera nabarmena izan dugu aurretik genituenekiko. Halaber, artekaritza eta polizen zenbatekoa baturik, ordaindu beharreko prezioa lehen aseguru polizekin bakarrik ordaindutakoa baino nabarmen txikiagoa da.
- Eta, azkenik, Aseguru-polizen gestio eta administrazio eraginkorra lortu dugu, bitarteko bakar batekin.

Guzti hori kontuan izanik, proposatzen da aseguru aholkularitza eta artekaritza zerbitzuarekin jarraitzea, berriro kontratatzeko behar den prozedura burutuz.

Esp. kodea: 2026CHOZ0027 **Gaia:** Aseguruen aholkularitza eta artekaritza zerbitzua

Bitartekaritza eta aholkularitza kontratu hau eratzen duten prestazioak, ondoren aipatzen diren arrisku taldeentzat izango dira, haien azterketatik beste batzuk sor badaitezke ere; halakorik gertatuz gero, kontratu honetara barneratu ahal izango dira beronen aldaketaren bitartez:

1. Kalteak ondasun higiezinei (edukitzailea eta edukia) eta ondasun higigarriei, Arrasateko Udalaren ondarea osatzen dutenak.
2. Kalteak, Arrasateko Udalak izan dezakeen erantzukizun zibila/ondarekoaren ondorioz eginak hirugarren bati.
3. Ibilgailu flota.
4. Kalteak erreklamatzea eta defentsa juridikoa.
5. Goi kargu eta langile publikoen lege-erantzukizuna.
6. Iturripe Kiroldegi berria sustatu eta eraikitzeko aseguru pribatuak: eraikuntzaren arrisku orotako asegurua eta sustatzailearen erantzukizun zibila.

* Zerbitzuetako kontratua bada adierazi zergatik Udalak ez dituen medio nahikoak berau burutzeko

Zerbitzu hau emateko Udalak ez ditu nahiko baliabide, ez materialak ez eta pertsonala ere. Beharrezkoa da zerbitzuaren kanpoko kontrataziora jotzea jarduera arlo horretan espezializatutako entitate batekin kontratatzeko.

Aseguru-bitartekaritzaren eta -aholkularitzaren sektorea oso merkataritza-eremu espezifikoa da, eta merkataritza-izaerako aseguru-etxeek jarduten dute bertan. Aseguru-konpainia horiek arrisku jakin batzuetarako estaldura-aseguruen premien bitartekotzan eta aholkularitzan espezializatuta daude.

Gainera kontuan izan behar da zerbitzua hau emateko Aseguru Artekarien, Aseguru Artekaritzako Sozietateen eta haietako Goi Kargudunen Administrazio Erregistroan inskribatuta egotea beharrezkoa dela, eta Udalak ez du betetzen baldintza hau.

3) Kontratu hau loteetan adjudikatzea proposatzen da?

EZ, Kontratuaren xedean jasotako prestazioak modu independentean egiteak zaildu egiten du kontratua ikuspuntu teknikotik eta ekonomikoki daukan tamainagatik, zatitzea ez zen eraginkorra izango. Uste da ez litzatekeela egokia izango, zerbitzu bakarra delako eta banatzeak kontratistak koordinatu beharra ekarriko lukeelako, egoera zorrotz ezagutzea eskatzen duen kontratuaren exekuzioa larriki ahultzeko arriskuarekin. Hortaz, esan genezake zerbitzua unitate bakar bat dela.

4) Kontratu honetan <u>klausula sozialak</u> kontuan hartu dira?

a) BAI ■ **zeintzuk?**

.- Adierazi zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien jarduera egiten duten langileei.

34/2024 Ebazpena, martxoaren 22koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita argitara dadila Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak eta genero-ikuspegia txertatzeari buruzko jarraibidea onartzeko erabakia kontuan izanda berdintasunaren arloko irizpide bar sartu da modu automatikoan kuantifikagarriak diren irizpideen artean, zehazki 5 punturekin baloratuko da kontratua gauzatuko duen taldeko kide batez gutxienez 5 orduko prestakuntza jaso izana berdintasunaren arloan.

.- Gainera, Genero berdintasunaren alorreko baldintza berezia: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren 22 artikuluan xedatutakoa betez, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako gauzatze-baldintza berezi batzuk barneratu dira kontratu honetan. Zehazki, kontratua gauzatzeko baldintza berezi bat sartu da, eta horren arabera, enpresa esleipendunak 3/2007 Lege Organikoaren 48. artikuluan ezarritakoa betez, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko lan baldintzak sustatu beharko ditu, eta berariazko prozedurak ezarri beharko ditu

horiek prebenitzeko eta horren xede izan direnek egin ditzaketen salaketak edo erreklamazioak bideratzeko. Konpromiso horrek berekin dakar neurri eta ekintza horiek kontratuaren exekuzioari atxikitako langileen artean eta erabiltzaile edo onuradunen artean zabaltzeko betebeharra. Hori guztia 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak xedatutako moduan.

Ezarritako emakumeen eta gizonen berdintasunerako betetze baldintza berezi hau kontratuaren xedearekin lotura zuzena du. Izan ere, baldintza horrek kontratua gauzatzean parte hartuko duten langile guztiei eragiten dio, kontratuaren gauzatze-epe osoan zehar eta gauzatu beharreko eginkizun eta fase guztietan.

Prestazioaren eta baldintzaren arteko elkarreragina bikoitza da: alde batetik, prestazioa gauzatzeko erak emakumeen eta gizonen egoeran eragin zuzena du; eta, bestetik, aukeratutako baldintzaren bidez prestazioak sor ditzakeen genero-desberdintasunak zuzentzea aurreikusten den heinean, baldintzak prestazioa gauzatzeko moduan eragina du.

Gainera ere, kontratuaren xedea osatzen duen prestazioa sektore edota eremu jakin batean kokatua dagoenez, aurreikusitako betetze-baldintza bereziak sektore edota eremu horretan gaur egun dauden genero-desberdintasunak desagerraraztea edo, gutxienez, murriztea sustatzen du. Zentzu honetan, hautatutako baldintzaren aplikazioa eta eragina transbertsalak dira, kontratu jakin honen gainean zuzenak izateaz gain.

.- Datu pertsonalen babesaren alorreko baldintza berezia: Era berean, datu pertsonalen babesari buruzko betetze baldintza bat ezarri da. Honen helburua esleipendunak datu pertsonalen erabilera zuzen bat egin dezala da. SPKL-ko 202.1 artikuluak honakoa dio: kontratuaren exekuzioak erakunde publikoek esleipendunari datu pertsonalak uztea dakarrenean, derrigorrezkoa izango da betetze baldintza berezi bat ezartzea esleipenduna datu pertsonalen araudia betetzera behartzeko. Ondorioz, baldintza hau araudiak berak eskatutako betekizun bat da.

Ezarritako baldintzek kontratuaren xedearekin lotura zuzena dute, modu objektibo batean ezarri dira, ez dira diskriminatzaileak eta ez dute lehia kaltetzen (hala SPKL-ko 145.5 artikuluko betekizunak betez).

5) Kontratu honetan <u>ingurumen klausulak</u> kontuan hartu dira?

a) BAI ■ **zeintzuk?**

Adjudikaziodunak konpromisoa hartu beharko du ingurumen arau hauek jarraitzeko:

Egindako txosten guztiak euskarri hauetan entregatuko ditu:
a) Euskarri elektronikoa: Arrasateko Udalak erabilitako programa eta bertsio informatikoetan.
Eta kopia bat paperean entregatu behar baldin bada
b) Egindako lanen ale hori entregatuko du, paper birziklatuan eta lehenetsiz bi aldeetan inprimaturik.

6) Kontratu honetan <u>hizkuntza irizpideak</u> kontuan hartu dira?

a) BAI ■ **zeintzuk?**

BAI. Pleguan zehaztuko den bezala: Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. Artikuluan ezarrita dagoena eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Arrasateko Udalaren Euskararen Erabilera Plana, Osoko Bilkurak 2024ko abenduaren 3an onartutakoa.

Arrasate, 2026ko irailaren 25a
Kontratazio Teknikaria

Arrasateko Udala
Elena Izarra Uriarte

ELENA IZARRA URIARTE
2026/09/30